

Manuel Larramendi. Jesulagun, euskaltzale, abertzale

Euskaldunon Egunkaria, 1990-12-23: 23.

Manuel Larramendi Bilboko Kolegioan sartu zen Lagundira, hamazazpi urte inguru zituela, eta hemen profesa egin zuen hogeitamasei urterekin, 1726an.

Nobizi-aldia eta apaiz-eskola edo Seminarioa, jesulagunen "Castilla" Probintziako besteak bezala egin zituen, Villagarcia de Campos-en (1709). Hemendik, Medina del Campora destinatu zuten Arteak edo Filosofia ikastera (1710-13), P. Luis de Losada maisu zuela. Kurtzoko lehena izan zen.

Ospe honekin heldu zen Salamanca-ko Colegio Real-era Teologia ikastera (1714-18). Hemendik, hiru urterako Irakaslego argia izan eta gero, bertan izan zituen Ordeneko bi Ekintzak. Hirugarren urtebeteko probazioa Valladolid-eko San Ignacio kolegion (1719). Gero, Palencia-kora joan zen, eta han izendatu zuten jesulagunen Teologiako irakasle (1720-23). Eta oraindik ospetsuago egin omen zen.

Hirurte-aldia amaitu eta gero Teologia irakasten jarri zuten Salamancan eta Valladoliden (1723-30). Hemen hiruzpalau urte egin zituenean, alargun geratu zen Espainiako Erreginak bere Konfesore izateko aukeratu zuen, eta Baionara abiatu zen Erreginarengana (1730).

Teologia irakasten aritu zen epe horretan idatzi omen zituen: "De la Antigüedad del Bascuence en España" (1728), eta "Arte de la Lengua bascongada; El imposible vencido", Salamanca 1729an inprimatua izan zena.

Erregin Alargun zen Mariana Neoburgo bere gogoz utzi (1734), eta Loiolara erretiratu zen. Hemen dagoela argitaratzen dira beste bere obra batzu: "Discurso" (1737). Beste lanen artean hasten du, 1758an, Andoaingo seme eta Argentinako Jujui-n bizi zen ongile handia Agustín de Leiza-rekin postatrukea.

Donostian Gipuzkoako Probintziak 1745ean inprimatu zuen bere obra erraldoia: "Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín". "Corografía" famatua 1754ean idazten du.

Loiolako erretiroan zegoela hil zen 1766ko urtarrilaren 29an, hirurogeita hemeretzi urte zituela, Kardaberaz eta Mendizabal jesulagunen ardurapean.

Ikusi izan dut Aita Larramendiren hil zen fetxa, Azpeitiko Matxinadaren eta Jesulagunen egozketarena nahasiak. Hara kronologia: Larramendi 1766ko urtarrilean hil zen Gipuzkoan 1755erako herriko kinkatxarrak nabarmenak zirela; Azpeitiko Matxinada eta Loiolako ondorenak 1766ko apirilean geratzen dira, beraz, geroxeago; Josulagunak, urtebete gero, 1767ko apirilaren 3an egotziak dira Penintsulatik.

Gero izan dira argitaratuak zenbait obra; garrantzitsuenak, Jose Ignacio Telletxea Idigoras jaunak bildu dizkio zehaztasun handiarekin hiru liburu eder: "Corografía de Guipúzcoa" (1969), "Autobiografía y otros escritos" (1973) eta "Sobre los Fueros de Guipúzcoa" (1983). Azken hauetako batzu nolabaiteko zentsuraren oztupoak gaudituz ezinik bere garaian geratutakoak.